

Alaves ♦ Hiru jokalariai titularrekin jarri zituen Manek atzoko saioan

Tellez, Pablo eta Azkoitia hasieratik berriz ere

Julio Salinasek ere hamaikakoan izateko aukera asko ditu



Julio Salinasek hasieratik jokatzeko aukera asko ditu.

Asier Errasti / Gasteiz

ALAVESEK atzo Mendizorroztan egindako entrenamenduan ikusi ahal izan zenez, Tellez, Pablo eta Azkoitia hasierako taldera itzuliko dira igandean, Valladoliden aurkako partiduan. Izan ere, ostegunero bezala, hainbat proba egin zituen Manek atzo ere, eta hamaikako hau erabili zuen; Herrera: Gañan, Karmona, Tellez, Torres Mestre; Desio, Pablo, Astudillo, Azkoitia; Magno eta Salinas. Bigarren zatian, Ibon Begoñak Azkoitiaren lekua hartu zuen.

Gauzak horrela, igandean Betisen aurka hasieratik aritu ziren zenbait jokalaria, Eg-

gen, Morales, Nan Ribera eta Kodro, hamaikakotik kanpo geratuko direla dirudi. Riberraren kasuan, partidu bateko zigorra bete beharko du, igandean bi txartel hori ikusi baitzituen. Eggen eta Morales, berriz, arazo fisikoekin daude eta iganderako osatuko direla dirudien arren, ez dira hasieratik ariko. Eggenek uzkur-dura du lepoan eta Morales gripeak jota dago. Kodrok, hasieratik jokatzeko aukeraren bat izan dezake, atzo titularrekin aritu ez arren; kontuan izan behar da asteartean Bosniarekin jokatu zuela, eta ondorioz, atzo gainerakoei baino entrenamendu ari-na goa izan zuela. Contrak ere

bere selekzioarekin jokatu zuen asteazkenean, eta ondorioz, atzo ez zen entrenamenduan izan —Gañanek bete zuen bere lekua hamaikakokan, baina igandean errumaniarra ariko da—.

Tellez: «Oso ondo nago»

Entrenamenduaren ostean, Oskar Tellezek azken asteetan eskuin orkatilan izandako arazoak atzean utzi dituela nabarmendu zuen: «Betisen aurka partidu bateko zigorra betetzea ondo etorri zait atsedena hartzeko, eta orain oso ondo nago, orkatila askoz ere hobeto baitut».

Josete bide onetik ari da osatzen

Joseteri oso ondo ari zaio sendatzen ezker izterrean izan zuen zuntz haustura, eta hurrengo astean taldekideekin batera entrenatzeko moduan izango da. Aste hontan ere entrenamenduetan parte hartzen ari da, oraindik ere bakarrik aritzen den arren.


Real Madrid-Alaves zuzenean ETB1ean

ETB1ek zuzenean emango du, maiatzaren 6an, Santiago Bernabeutik Real Madrid-Alaves partidua (21:00). Aste honetako jardunaldiko emaitzen arabera, partidua erabakigarria izan daiteke bi taldeentzat Txapeldunen Ligarako txartel bat lortzeko.

Vlatko Djolonga atzelari kroaziarra hizpide berriz ere Gasteizen


Alavesek hurrengo denboraldirako Vlatko Djolonga kroaziarra fitxatu duela zabaldu da berriz ere Gasteizen. Orain dela hilabete eskas, zurrumurru bera zabaldu zen eta orduko hartan, kroaziarrarekin «ezer ez zegoela» adierazi zuen Alavesek. Orain, berriz, badirudi Gasteizko taldeak edozein unetan jakinaraziko duela Djolonga fitxatu duela. Djolonga 23 urtetako atzelaria da, eta zentral edo ezker lateral jokatu du azken hiru urteetan Hrvatski Drogovljac taldean. Aurretik Orijent taldean aritu zen. Atzelaria izanik, 10 gol sartu zituen iazko denboraldian Djolongak, eta aurtien ere gol kopuru bera darama 24 partidutan.

irudietan



ROBIN TOWNSEND / EFE

Olazabal Espainiako Irekian, gaurtik aurrera. Jose Maria Olazabalek Espainiako Irekian parte hartuko du gaurtik aurrera. Argazkian, Severiano Ballesterosekin ageri da, atzo egindako entrenamendu saioan.



DUANE BURLISON / AP

Detroit Pistonseko Grant Hillek orkatila hautsi du.

Hillek agur esan dio denboraldiari, Miamiaren aurkako bigarren partiduan orkatila hautsi baitzuen. Emaitzak: Knicks 84-83 Toronto (2-0); Portland 86-82 Minnesota (2-0).



DAVID CHESKIN / AP

Murrayfield, urez gainezka. Eskoziako errubgi selekzioaren estadioa urez gainezka agertu zen atzo.